



KULTUR EGITARAU OPAROAK AUKERAN

Berastegin etzi ekingo diote Kultur Asteari, eta Gaztelun, berriz, ostiralean; askotariko ekitaldiak izango dira >6

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2008-11-04

VIURTEA 1.550.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Hungariako abesbatzaren zuzendaria garaikurra eskuan duela, herenegun, Leidor aretoan. IDOIA LAHIDALGA

Hungariako Cantemus koruak lortu du aurtengo Sari Nagusia

TOLOSA 40. Abesbatza Lehiaketako sari banaketa ekitaldia herenegun egin zuten; parte-hartzaileen «maila handia eta entzuleen harrera ona» azpimarratu dute antolatzaileek 2-3

Drogei buruzko hitzaldia izango da ostiralean, Udazken Kulturalaren barruan

ALEGIA Askagintza erakundeko Mikel Ozaita ibartarrak emango die, 12 eta 25 urte bitarteko gazteei 4

Asuncion klinikaren aparkalekua doan izatea eskatu dute

TOLOSA Mobilizazioak egingo dituzte ELAk eta LABek asteazkeneko klinikaren aurrean 3

Etxebizitza hutsen zerrenda egitea onartu du Udaltzarak ohiko bilkuran

LEITZA Ostiralean elkartu ziren ordezkari politikoak ez ziren adostasunera iritsi zergak erabakitzerakoan 7



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako DENAK tabernan, OSKI arropa dendan eta HITZAko Tolosa eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



HUNGARIARA SARIA



Entzulearen saria Letoniako Youth Choir Kamer abesbatzak eraman du. Haurren atalean, Txekiako Prague Philharmonic Children's Choir izan da garaila. I. L.

Kultura » Hungariako Cantemus Mixed Choir abesbatzak irabazi du aurtengo Sari Nagusia; antolatzaileak «gustura» daude aurtengoarekin.

ESTI EZEIZA

Cantemus Mixed Choir abesbatzak irabazi du 40. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketako Sari Nagusia. Denera sei sari irabazi ditu koru hungariarrak. Honenbestez, 2009ko maiatzaren 30ean, Frantziako Toursen jokatu den Europako Sari Nagusian izango da abesbatza hungariarra.

Antolatzaileak «gustura» agertu dira aurtengo jaialdiekin. Ana Arretxe, Tolosako Ekinbide Etxeko Lehendakariak azaldu duenez, «entzuleen aldetik, erantzuna oso

ona izan da, eta ia saio guztietan Leidor antzokia beteta izan da». Horren adibide da, asteburuko saioetan sarrerak agortu egin zirela. Honez gain, parte-hartzaileen maila altua nabarmendu du Arretxek, «batez ere ahots nahasien atalean». Izan ere, lehiakide guztiek puntuen %70a gehiago lortu dute, batez bestekoa %80 inguruan jarritz.

Letoniako Youth Choir Kamerak jaso zuen entzulearen saria. Hau zigortua izan zen zehaztutako baina denbora gutxiago egin

zuelako. Hau da, 15 eta 18 minutu arteko errepertorioa prestatu behar dute abesbatzek, eta Letonia-koek, 13 minutu egin zituzten. Ondorioz, bi puntu kendu zizkieten.

Aurten, berezitasun gisa, lehendabiziko aldiz Taiwango abesbatza batek hartu du parte lehiaketan, eta saririk eraman ez badu ere, gutxiagatik izan da.

Euskal ordezkariak lehen postuetan geratu dira. Leioako Kantikak Korala, bere errieto berritzaile eta aldi berean landuekin, bigarren geratu zen. Kup abesbatza gazteak erakutsi zuen berriz, kalitatezko abeslariak osatzen dutela taldea. Hala, brontzezko domina eskuratu zuten folklorea atalean.

Puntuei dagokionean, Amerikar Estatu Batuetako The Antioch

Chamber Ensemble izan zen gehien lortu zituena, baina lehiaketako arauak direla eta, ezin izan zuen Sari Nagusia eraman. Abesbatza estatubatuarra abeslari profesionalak osatzen dute, eta Sari Nagusia eramateko ezin dute profesionalak izan. Gainera, 12 abeslari baino gehiago izan behar dituzte taldeak, eta honek, 12 besterik ez zituen.

Hurrengo urtera begira jarri dira dagoeneko Tolosako Ekinbide Etxekoak. Ana Arretxek, aurrera begira ere, maila mantentzea dutela xede adierazi du. «Igotzea zaila da, horregatik, gutxienez mantentzea eskatzen dugu». Beraz, aurtengoa bukatu bada ere, lanean jarraitzen dute datorren urteko prestatzeko.

» SARIAK

KUTXA SARI NAGUSIA

■ Cantemus Mixed Choir.
Hungaria.

EUSKAL KANTU BATEN INTERPRETATZIO ONENAREN SARIA

■ Cantemus Mixed Choir.
Hungaria. J. Bustoren *Ego Sum Pastor Bonus* abestiagatik.

HAUR ABESBATZAK

- 1. Prague Philharmonic Childrens Choir (Txekia).
- 2. Leioa Lantika Korala (Euskal Herria) eta Vdokjnovenje (Errusia).
- 3. Motyli Sumperek (Txekia).

AHOTTS TALDEAK

Musika profanoa

- 1. The Antioch Chamber Ensemble (Amerikar Estatu Batuak).
- 2. Gentlemen singers (Txekia).
- 3. Cantemus Vocal Group (Hungaria).

Musika sakratua

- 1. The Antioch Chamber Ensemble (Amerikar Estatu Batuak).
- 2. Cantemus Vocal Ensemble (Hungaria).
- 3. Adur Vocal Group (Norbegia).

AHOTTS NAHASIAK

Plifonia

- 1. Cantemus Mixed Choir (Hungaria).
- 2. Youth Choir Kamer (Letonia).
- 3. Ensemble Vocal (Alemania).

Folklorea

- 1. Cantemus Mixed Choir (Hungaria).
- 2. Youth Choir Kamer (Letonia).
- 3. Kup taldea (Euskal Herria).

Aberastasun eta mixeriaren gaintetik kantuan



» Iritzia

Migel Zeberio
Koru zuzendaria

Egunerokotasunaren burrunbak bagaramatza jada. Igandeko kontuak askorentzat iragana badira ere, merezi du Tolosako 40. Abesbatza Lehiaketak izan zuen amaiera, tarte honetara ekartzeak.

Gehiengoan, entzulego eta epai ofizialaren artean, alde handirik ez zen izan, hala ere, arau hauste bat

medio sortu zen desadostasuna. Letoniako Kamer koruak, larunbaterako azken saioan jendearengan zurratzen sortu zuen berak, polifonia sailean, arautua dagoen gutxieneko iraupena ez zuen gainditu bi minuturen aldearengatik. Arrazoi honegatik, hamar puntuko galera jasotzera kondenatu zen; bestelakoan zegokion txapela galtzeraino. Ikuslegoaren saria irabaztea lortu zuen, ez ordea beste txapelik. Horrela, konforme ez eta, sariak jasotzeko aldi bakoitzean, zital xamar agertu zen zuzendaria.

Bestelakoan, giro atseginean ospatu zen sari banaketa, politikari eta babesleen ordezkari ugariaren joan-etorriak tarteko. Euskal koruei dagokionean, epaia aldeko izan zutela

pentzatsen dut. Merezimenduz lortu zuten: Leioako Kantikak haurren sailean bigarren postua eta Kuptaldea folklorea saileko hirugarrena.

Haurren saileko lau sariak, bina banatu zituzten bigarren posturako, pozez jasoko zituztelakoan nago. Emaitzak beste era batekoak izan balira ere ez nindukete harrituko naiz eta puntu zenbaketan alde txoa atera zuen Prahako Philharmonic koru garailak.

Guztien artean puntu gehien lortu zutenak New Yorkeko Antiochekoak izan genituen; ahots taldeetan irabazteko, musika erlijioso eta profano sailetan. Ez zituen muzin egin beraie buruz egitarauak zekarren kurrikuluari. Hiri horretako sonaz-

ko agertokietan aritzen baitira beren jardunean.

Hungariarrei buruz luze hitz egin nuen lerro hauetatik. Emaitzetan beste hainbeste aritzeko adina aitzakia eskaini diezadakete. Aurtengo uztarik oparoena jaso zuten. Saskian eraman zituzten; ahots taldeetan hirugarrena profano sailean, bigarrena sakroan, bi lehendabiziko koru mixtoetan, euskal obarrien interpretazio onenaren saria eta Lehiaketako txapel nagusia.

Ahots taldeetan bi sari esku berezietara joan ziren, gazte gazteak biak; Txekiako Gentleman edo zalduntxoek, musika profanoan eskaini zuten egitarau politik jaso zuen bigarren saria. Elegantziaz jardun zuten Schubert en *Gaua* edo Bea-

ties en *Ob La Di*, bezelakoetan. Adur, munduko gazte koruko lagun taldeak berriz, hirugarrena musika sakroan. Bultzadaxoa beraz gazte horien ibilbidei.

Askori, eragin zion malenkonia tristea, laurogeita hamargarren hamarkadan, musikaren alde berri bat gureganatu zuen Exaudi kubatar mitikoaren gainbeherak ordea. Hauek ez genituen amaierako saioan entzun. Beregarraian Matamorosen *Juramento*, ekarri zuen berak, iraganeko dizdira galduta entzun genituen. Kubatarrek, blokeoaz eta egoera politiko estua gain, azken aldi jasan dituzten haizeteen suntsipenarekin, muturreko baldintzetan bizitzera behartuak daude. Ondorioa ote? Guk bitartean, beraiekin kantuan jarraituko dugu.

«Si el amor hace sentir hondos dolores y condena a vivir entre miseria...».



GOIERRIKO HITZA

«Harro egoteko modukoak dira bi euskal abesbatzak»

XABIER SARASOLA » Epaimahaiko lehendakaria

Musika » Letonia eta Amerikar Estatu Batuetako abesbatzak nabarmendu badira ere, Hungariako izan da azkenik garaile.

E. EZEIZA

Aurten lehendabiziko aldiz Xabier Sarasola beasaindarra izan da 40. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketako Epaimahaiko Lehendakari. **Zergatik irabazi du Hungariako abesbatzak?**

Gauzak ongi egin dituztelako. Abesbatza musika eskola batetik dator, etabertan abesbatza dute oinarri. Ondorioz, hau nabaritu egiten da. Urte asko daramatzate lanean, eta abesbatza ugari daukate.

Dena den, letoniarrek eta estatu-batuarrak puntuazio hobea jaso zuten.

Bai, baina Amerikar Estatu Batuetako abesbatzako profesionalak dira eta ezin dute Europako Sari Nagusian parte hartu. Bestalde, Letoniakoek ere denborarekin akats bat egin zuten, eta ezin izan dute irabazi. Letoniako abesbatza hobea zen Hungariako baino, baina, lehiaketa bat da, eta letra txikia ere irakurri egin beharra dago. Oinarriak denentzat berdinak dira, eta bete egin behar dira.

Euskaldunak ere lehendabiziko postuetan geratu dira.

Askotan aipatzen da, Euskal Herrian asko hitz egin, baina ez dagoela ia abesbatzarik. Baina konturatu beharra daukagu, oso gutxi garea. Baina parte hartzen dugunean, beste mailan jartzen gara. Bi abesbatza hauek lan bikaina egin dute Lehiaketan. Haurren abesbatzaren kasuan, esanguratsua da, egituratutako eskola baten barruan daudela. Urteak daramatzate lanean, eta oso ongi egiten dute. Kup taldeari dagokionean, koruetan dauden elementu onek daukate. Harro egoteko abesbatza da hau ere.

Epaimahaia eta entzulegoak antzeko iritzia izan dute saria emateko garaian.

Tolosan abesbatzak entzuteko eta aztertzeo ohitura handia dago. Nekez ibiltzen dira elkarrengandik urruti, entzuleak eta epaimahaia.

Aurtengoan maila altua izan da.

Bai, horrela izan da. Nahiz eta puntuazioak ez diren oso altuak izan. Normalean altuagoak izaten dira Tolosan puntuak. Hala ere, baxuagoak izan badira ere, horrek ez du esan nahi maila jaitsi denik, abesbatza oso onak izan baitira. Denak ere, bigarren eta hirugarren sariak eramateko modukoak ziren. Urte oparoa izan dela esan daiteke.

Besteen gainetik, abesbatzaren bat nabarmendu al da?

Besteen gainetik bi abesbatza egon dira: amerikarra eta Letoniako. Denon ahotan egon da hau. Baina, aipatu bezala, lehiaketako arauak bete egin behar dira, eta ez hori bakarrik, egitarauak ongi pentsatuta ekarri beharra daude. Ezin dena egin da, 8-10 minutu oso onak egin, eta gainontzeakoak betetzeko bakarrik.

Gainontzeko epaileek zer komentatu zuten?

Aipamena, denena berdina izan da. Orokorrean, kalitate handiko koruak bildu direla esaten zuten. Beste hainbat lehiaketetan, bi edo hiru abesbatza on bakarrik izaten dira, hemen berriz, 8 edo 9. Harri-garria egiten zaie hau.

Aurten, folklore atalean, zure abesti bat kantatu behar izan dute. Gustura egin dituzten moldaketekin?

Bederatzi abesbatzek kantatu dute, eta nor baino nor, hobeto egin dute. Hasieratik zorte ona izan dut abesti horrekin. Hodeiertz abesbatzarentzat egin nuen, eta hauek ere oso ongi abesten dute. Oraingoa, nolabaiteko gailurra izan da. Gainera, igandean, Ferialekuan ospatutako bazkarian, bederatzi abesbatzek elkarrekin abestu zuten.

Asuncioneko aparkalekua doan izateko eskatu dute ELA eta LABek

Ekonomia » Mobilizazioak deitu dituzte sindikatuek; elkarretaratzeak egingo dituzte asteazkeneko klinikaren aurrean.

ERREDAKZIOA

Asuncion klinikaren aldamenean aparkalekua ari dira egiten, eta ELA eta LAB sindikatuek jakitera eman dutenez, zerbitzu hau erabiltzen

duenak ordaindu egin beharko du. Hau salatzeko asmoz, mobilizazioak deitu dituzte.

ELA eta LAB sindikatuko en iritziz, «aparkalekua egitearena asmo ona da zalantzarik gabe, baina hemen ere negoziario egin nahi dute». Honen beste, sindikatu abertzaleetakoek azaldutakoaren arabera, langileen ordezkariak behin eta berriro zuzendaritzarekin egon bada ere, bai bertako pertsonalari bai edozein gerturatzen

den erabiltzaileari kobratzeko asmoa dute. Honen aurrean, langileek, zuzendaritzaren asmo hori ez dute onartzen.

Joan den urriaren 29an, langileen batzarrak erabaki zuen doako aparkalekua baten alde mobilizazioak egitea. Oraingoz, asteazkeneko elkarretaratzeak egingo dituzte Asuncion klinikaren bertan. Hori dela eta, ekimen hauetan parte hartzeri gonbidatzen dituzte herritarrak eta langileak.

Odontologo eta Estomatologoek kanpaina Tolosan izango da

Osasuna » Hainbat jarduerak gauzatuko dituzte datozen egunetan, «elikadura osasuntsu eta irribarre freskoaren» alde.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Odontologo eta Estomatologoek Elkarteak kanpaina bat jarri du martxan, *Elikadura osasuntsua, irribarre freskoa* eta lelopean. Kanpaina honen helburua da ahoko eta hortzetako osasunaren prebentzioa.

Hala, ekimen honen baitan, Tolosan hainbat jarduerak eramanango dituzte aurrera. Horien artean, Dentibus, doako ahoko eta hortzetako azterketak eta hauen gaixotasun ohikoek prebentzeko moduari buruzko informazioa ematen duen unitate mugikorra egongo da Triangulo plazan, bihar, 10:00etatik 14:00etara goizez, eta 15:00etatik 19:30era egongo da arratsaldean.

Bestetik, IFA Supermerkatuetan, aste guztian zehar, ahoko eta hortzetako osasunari buruzko informazioa banatuko dute. Honez

gain, Tolosako Fronton, Julian eta Nicolas jatetxe ospetsietan, hilaren 7an eta 8an ahoentzako material sorta eta bere osasunari buruzko aholkuak banatuko dituzte bertaraten direnen artean.

Amaitzeko, Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, aste guztian zehar hitzaldi informatiboak eskainiko dituzte. Jardunaldi hauen izena, *Nire lehen eguna dentistarenean* izango da. Hemen, idazlan lehiaketa egingo dute, eta Hortzi maskotaren bisita jasoko dute. Honek, osasun aholkuen jokuak banatuko dituelarik.



Agur esan diote ogi banatzaileari

URKIZU » Pasa den ostiralean, urriak 31, Urkizu, Auzo txiki eta Albizturko kaxkoetan ogia banatzen ibili den Iñaki okinari omenaldi txiki bat egin zioten. Izan ere, 23 urtetan horretan aritu ondoren, hemendik aurrera ez du berak banatuko ogia. Alurtxiki elkarteak antolatuta, uzo-ko biztanle batzuk elkartu ziren Olarraingo Lagun artea elkartean eta afari goxo batekin ospatu zuten. Auzotarrek eskerrak eman nahi dizkiote Iñakiri «gurekin hain ogi-banatzaile ona izateagatik eta ogi etorria eman Martini». HITZA

@ Eztabaida. Tolosako Koronistas eliza botatzea onartu du Udalak, bertan etxebizitzak egiteko. Zer iruditzen zaizu? Etxebizitzak egiteko era biliko al zenuke? Botatzea beharrezkoa da? Etxebizitzak behar dira? Sartu

www.tolosaldekohitza.info

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Voith-Gorostidi eremuko lehenengo fasean. 2 logela, 2 komun, terraza zabala, sukaldeta, sala, garajea eta trasteroa. 300.000 euro (BEZ-a barne). Negoziatzeko prest. Interesatuak dei-

tu ondorengo telefono zenbakira: 657 70 05 68.

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin beharra dago. Interesatua deitu 657 23 00 11era edo 634 91 94 82ra.



Drogei buruzko hitzaldiak ohikoak dira, jakinmina eta zeresan handia sortzen baitute gizartearen. Irudian, Bidegoianen drogei buruzko gurasoentzako hitzaldiaren une bat. O. ESKITXABEL

Drogei buruzko hitzaldia izango da ostiralean

Ikaztegieta » Udazken Kulturalaren baitan, 12 eta 25 urte bitartekoentzat izango da, Askagintza erakundearen eskutik.

NEREA URBIZU

Ikaztegieta Udazken Kulturalari ari dira gozatzen. Aste honetarako haurrentzako antzerkia eta gazteentzako hitzaldi interesgarri bat antolatuko dute. Kiroldegian 21:00etan izango den hitzaldia drogei buruzkoa izango da, eta soilik eta bakarrik 12 eta 25 urte bitartekoentzat izango da.

Askagintza erakundeko Mikel Ozaita ibartarrak bideratuko du ostiraleko hitzaldia eta *Drogak larru-gorritan* izena jarri diote. Beraz, bertan azalduko diren gazte-

txo eta gazteek «drogei buruzko informazioa jasoko dute» eta noski, «honen baitan alkohola eta botikak izango dira kontuan».

Askagintza erakundeak 20 urte daramatza drogei buruzko prebentzioa lantzen, eta «drogen normalizazioa bultzatzen du: drogak gure inguruan daude, egon dira eta egongo dira ere. Horregatik drogekin bizitzen ikasi behar dugu. Guk informazioa eman nahi dugu: gero hauek hartu edo ez hartu, zer hartu edo zer ez hartu, bakoitzaren erabakia da autonomoak garen horretan». Gero, bakoitzaren lana da bere errealitateari eta biziaz droga (posible) horri lekua ematea.

Menpekotasunean ez erortzea «Substantzia ezberdinak, jende ezberdina eta testuinguru ezberdinak daude», dio Ozaitak, eta «egokitu zaigunaren arabera, drogak ezagutzeko eta hartzeko aukera gehiago edo gutxiago izango ditugu». Horregatik, «garrantzitsua da 18 urtez azpikoei batez ere, laguntzea, drogen menpekotasunean ez erortzeko». Azken finean

hau da erakunde honek bilatzen duena, «menpekotasunean ez erortzea, prebentzio lana egitea».

Gazte garaia esperimentazio garaia izaten da bizitzaren arlo gehienetan, eta baita drogen munduan ere. «Drogei buruzko informazioa badago, baina oso desegituratua, partziala. Guk drogak diren bezala, bere horretan azaltzen dugu, drogak larru-gorritan, hain zuzen. Izan ere, informazioirik gabe ez goaz inora: abiapuntua informazioa da».

Haurrentzako antzerkia

Ostiralean 17:00etan, kiroldegian ere haurrentzako *Magia teiltatua* antzerkia izango da ikusgai, Txalo konpainiaren eskutik. Antzerki honetan Betisa, Dorleta eta Falasoz dira protagonistak (Iraitz Lizarraga, Asier Kidam eta Jorge Santos) eta magiaren existentziak ariko dira. Betisa izarrak teleskopioarekin begiratzen aterako da San Joan gauean. Neskari izarrak asko gustatzen zaizkio, baina ez du ikusi eta uki ezin daitekeen munduan sinesten. Baina Dorleta mago ezagutuko du...

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Tokiko Gobernu Batzarrek, 2008.eko urriaren 20an egindako bileran hurrengo plana hasiera batez, baldintzekin, onestea erabaki zuen:

EZ.7 "Voith-Gorostidi" eremuko etxadi barruko guneen Hiri Berritze Plan Berezia.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 97. artikuluz 95.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedienteak hogei egunez HOCEI EGUNEZ jendaurrean jarrita egongo da.

Espedienteak jendaurrean jartzeko arrazoiak hau da: nahi duenak dokumentua aztertu eta alegazioak egiteko aukera ematea.

Irargarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vascon, Tolosaldeko Hitza eta Berria argitaratuko da, Aurrean aipatu den epea argitalpen honetako azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedienteak Tolosaldeko Udaltzako Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean, Alegazio edo erreklamazioak eraikin honetan bertan dagoen Santera Erregistro Okorrorrean aurkeztuko dira alkatere-lehendakariaren zuzenduta.

Tolosan, 2008eko urriaren 28an.

ALKATEA.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Olaberriak Munduko Kopan laugarren postua lortu du bi probatan

Ikaztegieta » Espainiako selekzioarekin lehen aldiz aritu zen taldekako jazarpen proban eta seigarren egin zuten.

ERREDAKZIOA

Leire Olaberria Manchesterren aritu da asteburuan Munduko Kopako lehenengo fasean eta bi probatan laugarren egin du: Scratch-eko finalean, Leire Olaberria garaipea lortzeko zorian izan zen. Helmugara iristeko metro gutxi falta zirenean (Olaberriak irabaziko zuela uste zenean) beste hiru

txirrindulari aurreratu zitzaizkion. «Ondo» aritu da berriz ere, baina zorte handiegirik gabe.

Puntuazioko proban laugarren postua eskuratu zuen: Cespa Euskadi taldeko arduradunen hitzetan, «Leire ez dago oraindik ehuneko ehunean, baina hala ere, garaipearengatik borrokatzen du».

Bestalde, Espainiako selekzioarekin taldekako jazarpean aritu zen Olaberria eta 6. egitera iritsi ziren. Honekin, datorren Mundialeko aritzeko balio handiko puntuak lortu dituzte. Taldea Gema Pascualekin eta Devora Galvezekin osatu du ikaztegi-tarrak. Datorren hilean bigarren fasean ariko da.

Gaur eztabaida bat Amezketan, eta Potosiri buruz Alegian

Kultura » Euskarari buruzko eztabaida prestatu dute Amezketan: Alegian, 'Potosirekin bat' proiektioa izango da.

N. URBIZU

Amezketan gaur, Kultur Hamabostaldiaren lehenengo ekitaldia izango dute, herritarren arteko solasaldia, hain zuzen. Solasaldi honetan euskararen inguruan ariko dira eta noski, gero eta jende gehiago, are eta hobe iritzi ezberdinak jasotzeko eta aberatsagoa izateko eztabaida hau. Honetan, besteak beste, euskararen inguruko hainbat arazori irtenbidea ematen saiatuko dira. Bi herritarrek bideratuko dute lagunarteko eztabaida. Solasaldia 20:30ean izango da, balioanitzeko gelan.

Bihar, aldiz, Joxe Mari Otermi-

nen txanda izango da, *Amezketako historiari buruzko zenbait argibide* emanez. Hau ere 20:30ean izango da, balioanitzeko gelan. Bertan, hainbat amezketarren memoriak freskatuko ditu, eta beste hainbat hasetu.

Ez da, baina, asteko hitzaldi bakarra, etzi 18:00etan *ongi lo egiten ahalegindu, hobeto bizitzeko* asmoz (Kutxaren laguntza), balioanitzeko gelan ariko baitira.

Alegian, Potosiri buruz

Proclade Gobernu Kanpoko Erakundearen eskutik, gaur *Ipar Potosirekin bat* proiektioa izango da. 19:30ean hasiko da Alegiako Udazkenean Kultura jardunaldien baitan, Kultur eta Kirol Etxean.

Etzi, berriz, 18:30ean, *Komikien sorkuntza* deitutako hitzaldia prestatu dute, eta Joseba Antxustegi-arte irakasle eta komikigileak bideratuko du.

Laburrak

Txerri Festa antolatzeko bilera izango da gaur

LEABURU-TXARAMA » Txaramako jai batzordeak Txaraman Txerri Festa antolatzeko asmoa dauka eta horretarako bilera bat egingo du gaur bertan. Herritarrek azaltzea nahi dute, honela, festa egun honetarako proposamen eta ideia gehiago jaso ahal izango dira. Bileran Txaramako elkarteak izango dira 20:00etan.

Gaur, Michel Marmier doktorearen hitzaldia

VILLABONA » Gaur 19:00etan Villabonako Udalak antolatuta, udaltzeko Erabilera antzeko aretoan Michel Marmier doktoreak *Bizkarrezurreko mina: arazoak eta prebentzioa* hitzaldia emango du. Doan izango da eta medikuak hainbat argibide eta gomendio osasuntsu emango ditu hitzaldi honetan.

Ezagut ezazu zure alderik freskoena



Teibitan ezagutu nuen nire alderik freskoena,
baharrun-ale lehor batetik justoin eler berria sortu zela ibusi nuenen.
Biziak eta naturalak aurrera egiten duten gure harridura eta gozamenerako.
Eta orain, horrenbeste urte pasa direnean, zurrara bera sentitzen dut, baina
Udal Merkatuan oraingoan. Besten inguru natural batera bainaramate bolorek,
usainek, tratu atseginak eta kalitatezko produktuek.
96 100 naturalak eta oso, oso freskoak direlako.

Eros ezazu zure **Udal**
Merkatua



Enkarni Genua Gaztelun izango da eta Berastegin Jesus Altunari omenaldia egingo diote igandean. E. EZEIZA-J. SAIZAR

Ekintza kultural ugari, Gaztelun eta Berastegin

Kultura » Urtero bezala Kultur Asteak antolatatu dituzte; Berastegin ostegunean hasiko da eta Gaztelun, aldez, ostiralean.

REBEKA CALVO

Herri gehienetan bezala, Gaztelun eta Berastegin ere Kultur Astea antolatatu dute. Herrian bertan ekintza kulturaleraino gozatzeko aukera zabaldu nahi dute horrela eta urtero asko izaten dira antzerki, hitzaldi edota afarietara gerturatzaren direnak.

Apustu eta guzti Gaztelun
Gaztelun ostiral honetan hasikoa da Kultur Astea eta hilaren 16ra arte luzatuko da.

Horiek horrela, ostiral honetan, hilak 7, 20:30ean sendabelarrei buruzko hitzaldia izango da Eskola Zaharrean Marandi Baserriko emakumeen eskutik. Hurrengo egunean, hilak 8, Txotxongilo Taldeko Enkarni Genua gerturatuko da Gaztelura *Galtzagorriak* txotxongilo saioa eskaintzeko. Umeei zuzendutako lana da eta hau ere Eskola Zaharrean izango da 18:00etan. Ondoren, 20:30ean, afari herrikoia antolatatu dute Kontseju tabernan.

Igandean, aldez, Erretiratuen Egunera izango dute herrian. 12:00etan hasiko dira helduenak jai giroarekin; lehenengo meza izango dute eta ondoren dantzariak, bazkaria eta opari banaketa izango dute. Afari herrikoia zein Erretiratuen Egunera joan nahi dutenek bihar, asteazkena, baino lehen deitu behar dute 943 67 58 97 telefono zenbakira.

Gazteluko Kultur Astea hilaren

16an amaituko da. Egun horretan, 11:00etik aurrera, korrika apustua izango da. Izan ere, Gazteluko Ramon Otegi Luis Mari Otegi, gazteluarra hau ere, 1990. urtean korrika egindako marka gainditzen saiatuko da. Luis Mari Otegi orduan Gazteluko udaletxetik Uliko aterpetxea bitarteko bidea, joan eta etorri, 43 minutu eta 35 segundotan egin zuen eta marka hauxe gainditu beharko du orain Ramon Otegi.

Emanaldi ugari Berastegin ere
Berastegin aste kulturala egun bat lehenago hasiko da, etzi, hilak 6.

Ipuin kontalari batekin hasiko dute herri honetan Kultur Astea; 17:00etan Muñagorri eskolan Idoia Sanchezen istorioekin amesteko aukera izango baita. Hurrengo egunean, ostirala hilak 7, 21:00etan, Muñagorri eskolan ere, *Mari-Mendi* bezala batailatutako hitzaldia izango da entzugai. Bertan mendia eta emakumeak izango dituzte hizpide.

Larunbatean, aldez, 12:00etan hasiko dira ekintza kulturalak. Muñagorri eskolan aipatu orduan Jesus Altuna arkeologo berastegierra izango da *Gaurko gizakia-ren historiaurrea* hitzaldia eskaintzen. 16:30etik 18:30era, aldez, herriko frontoian herri kirolak eta baserriko jolasak izango dira etxeko txikiengentzat Kulkiren eskutik. Ondoren txokolatada izango dute Urepelen. Gauean, 21:30ean, *Ate Joka* izeneko antzerkia ikusi ahal izango da frontoian. Antzezlan honetan Joseba Usabiaga, Iker Galarza eta Sara Cozar aktoreek egiten dute lan.

Igandean, hilak 9, Donostiako udal txistulari bandak eta Berastegiko txistulariek kaleak alaituko

dituzte 09:00etatik aurrera. Ondoren, Jesus Altuna arkeologoari omenaldia egingo diote jaioterrian. 10:45ean Donostiako udal txistulari banda eta Berastegiko txistulariek udaletxetik elizarako bidea hartuko dute eta meza 11:00etan izango da. Meza eta gero, dantzarien eta txistularien emanaldia izango da plazan eta ha-maiketako Karrapean. 17:00etan umeentzako DVDak eskainiko dituzte eskolako ganbaran.

Hilaren 13an 21:00etan berrartuko dute Kultur Astea, izan ere herriko udaletxea berritze proiektuaren aurkezpena egingo baitdute Udaletxeko aretoan. Ostiralean, aldez, berriz ere umeentzako DVDak emango dituzte eskolako ganbaran 17:00etatik aurrera. 21:30etan Muñagorri eskolan Ander Izagirrek *Euskal Herriko hogei sekretu txiki* ikus-entzunezko emanaldia eskainiko du, non euskal paisaiak eta euskal herritarrak izango dituen ardatz.

Gazta dastatze ikastaroa
Larunbatean, hilak 15, 11:00etan Urepelen gazta dastatzeko ikastaroa eskainiko dute eta 15:00etan, Basurde Elkartearen, mus txapelketa azkarra izango dute. 17:00etan frontoian Poxpolo, Mokolo eta-konpainiak pailazo taldeak *Runrun* ikuskizuna eskainiko dute. 19:00etan gaztain jatea eta *Bertsu Zakutoa* izango da, hau da, atzoko eta gaurko bertsoak abesteko aukera izango da. Igandean, hilak 16, amaituko da Kultur Astea; 11:00etatik aurrera azoka, I. Ardi Txapelketa, II. Animalia Erakusketa eta Gazta Lehiaketa egongo da. 18:00ean, frontoian, gainera, talo eta gazta jatea izango da ardo eta sagardoaren laguntzarekin.

Berdinketa lortu zuen Ibarrek Tafatransen aurkako partidari

Areto-futbola » 4-4ko emaitzarekin bukatu zen larunbateko partida Belabieta kiroldegian.

ERREDAKZIOA

Berdinketa lortu zuen Ibarrek Lauburu areto futbol taldeak larunbatean. Etxean jokatu zuen partida, Belabieta kiroldegian, Tafallako Tafatrans taldearen aurka eta 4-4ko emaitza lortu zuten.

Joseba Balerdi, Jon Garmendia, Ion Ander Karrera, David Prados eta Aitzol Oyarbide izan ziren zelairatu ziren lehen bost jokalariek, nahiz eta Unai Labacak, Ruben Etxartek, Victor Silvak, Loitzun Sanzek eta Aritz Otaegik ere jokatzeko aukera izan zuten. Atezain ordezkoa, aldez, Igor Zabalo gaztea izan zen.

Antzeko maila

Nahiko berdinduta ibili ziren bi taldeak partidua osoan zehar. Lehen gola, hala ere, partidako bigarren minutuan izan zen; David Pradosek sartu zuen gola.

Partida osoan zehar Ibarraok gola sartzeko aukera gehiago izan zituzten, baina jokaldietako asko ezin izan zituzten aurrera eramanez. Ibarraok gainontzeko golak Ruben Etxartek —bi gol sartu zituen— eta Unai Labacak lortu zituzten.

Bizkaiko Irekiko finalean izango da Arrospide Atutxa II. arekin batera

Leaburu-Txarama » Donostiako bigarren finalerdietako irabazleak izan ziren aizkolariak.

ERREDAKZIOA

Leaburu Anjel Arrospide aizkolariak asteburu honetan Donostiako jokaturako Bizkaiko Irekiko bigarren finalaurrea irabazi zuen. Arrospide Atutxa II. arekin batera aritu zen. Garaipenaren ondotik Durangon, hilaren 16an, izango den txapelketako finalean izango da bikotea Lopez eta Mendieta aizkolarien aurka.

Bigarren finalaurrekoan bost proba egin behar izan zituzten aizkolariak. Lehen hiruretan Arrospide eta Atutxa izan ziren onenak; lehen proban 40 kolpe behar izan zituzten, bigarrenetan minutu bat eta 20 segundotako marka egin zuten eta hirugarrengoa 2 minutu eta 45 segundokoa. Azken-aurreko lanean ere garaile atera zen bikotea eta Garitari eta Larretxeari 13 segundotako aldea atera zieten.

Azken proba iraupenekoia izan zen, eta honakoan, bikoteak 17 minutu eta 5 segundotako denbora behar izan zuen proba bukatzeko. Garitak eta Larretxeak, aldez, 18 minutu eta 48 segundoko behar izan zituzten azken probako lan guztiak bukatzeko.



Udaletxea eraso dute asteburuan

IBARRA » Ibarra Udaleko bozeramaile Batzordeak prentsa ohar baten bidez jakinarazi duenez, ezezagunek herriko udaletxea erasotu dute asteburu honetan. Zehazki, «PNV=Fatxa» margotu dute paretean eta hainbat leiho harrikatu dute. Batzordeak ekintza hauen aurrean bere «gaitzespen osoa» adierazi du. «Udalak ez du ulertzen nola litekeen herri ondasunen aurka atentatzea demokrazia bultzatzeko. Indarkeria ekintza hauen aurrean lanean jarraituko dugu irmo gure helburu politikoak lortzeko eta udal proiektuak dinamizatzeke», gaineratu du. HITZA



Iragan ostiral gauean, Udaltzaren ohiko bilkura egin zuten Leitzako hautetsiek batzar aretoan. ASIER IMAZ

Etxebizitza hutsen zerrenda egingo du Udalak bilkuran onartuaren arabera

Leitza » Zergak erabakitze orduan ez ziren adostasunera iritsi ohiko bilkuran elkartu ziren ordezkari politikoak.

ASIER IMAZ

Ohiko Udaltzaren bilkura egin zuten herriko ordezkari politikoek iragan ostiralean. Bertan 5 hautetsi independentista, EAren 2 zinegotzi eta UPNren bakarra bildu ziren batzar aretoan. Gai-zerrenda 19 puntuko osatu zuten.

UE 32 unitatearen inguruan

Gai zerrendako 3. eta 5. puntuak UE 32 unitatearen gainerakoak ziren. Hautetsi independentistek (5) eta UPNren ordezkariak aldeko bozka eman zuten, EAren biak abstenitu egin ziren. Ondorioz, UE 32 unitatearen «plan partzialaren eranskinaren hasierako onespina, hitzarmen urbanistikoaren behin betiko onespina eta Konpentsazio juntaren estatutuak» onartu ziren.

Igogailuak eta abiadura

Igogailuak jartzeko irizpideak onartzera ukan, zazpigarren puntuan, hautetsi guztiak adostasuna erakutsi zuten, 8ek aldeko bozka eman zutelarik.

Ondorengo puntuan, «Leitzako alde zaharrean abiadura murrizte-

ko proposamena» eztabaidatu eta bozkatu zuten. Hemen ere denak ados agertu ziren, ondorioz, 20 kilometro orduko abailan ibili ahal izango da gehienez ere alde zaharrean. Erabaki hau bando baten bidez zabalduko dute herrian eta bide-seinaleak jarriko dituzte erabakiak eragina edukiko duen guzietan.

Partzuergo eta tasak

«Nafarroako hiri hondakinen tratamendurako partzuergoan parte hartzea eta estatutuak onartzea» adostasunez atera zuten aurrera ordezkari politikoek. Honen inguruko tasek eta oro har ordenantza fiskalarekin, iritzi ezberdinak azaleratu zituzten. EA eta UPNren ustez, «krisia» medio, zergen igoerak prezioen garestitzearen indizea soilik izan beharko lukete kontutan. Xabier Zabalo alkateak, EA eta UPN agintean dauden Nafarroako hainbat herritako adibideak aipatu zituen, hauetan zergak KPI baina gehiago igo zituztela aipatzeko, aldi berean, herri hauetako igoerak euren aurkezutako en ginetik zeudela esan zuten.

Zaborren kasuan eta partzuergoan parte hartzeko erabakiaekin lotuta, hautetsi independentistek KPI +1eko igoera aurkeztu zuten hirigunean. Hemendik kanpo berriz KPI +0,5a. Bilkuran zegoen UPNren ordezkari bakarrak, Sil-

vestre Zubitur-ek, baserritarrei ez litzaiekeela ezer kobratu behar aipatu zuen, «izan ere, hauek herri-tarren aldean erdia baino gutxiago erabiltzen dituzte zerbitzu horiek». Hautetsi independentistak UPNren bigarren zinegotziak, bilkuran ez zegoen Jose Migel Goikoetxeak, gain honen inguruko batzordean, «justu aurkako» defendatu zuela esan zitoten Zubiturri. Beti ere hautetsi independentisten arabera, Goikoetxeak herri gutzian, hirigunean edo hemendik kanpo, denek berdín ordaindu behar zutela defendatu omen zuten.

Ordenantza fiskalak, EAren eta UPNren ordezkariak (3) aurka bozkatu arren, onartuak gelditu ziren hautetsi independentisten aldeko bozkek (5).

Beste hainbat erabaki

Etxebizitza hutsen gainean, EA eta hautetsi independentistak zerrenda egitea erabaki zuten, hau da, herrian zenbat etxebizitza huts dau-

den jakiteko. Horretarako «ordenantza fiskala, okupatu gabeko etxebizitzaren gaineko zerga arautzen duena» onartu zuten. Erabaki honen helburu bakarra zerrenda egitea dela aipatu zuen Zabalo, tipoa %0an jarriz. Erabaki honekin etorkizunean alokairu babestua bultzatzeko asmoa azaldu zuen Udalak. UPNren ordezkariak aurkako bozka eman zuten, nahiz eta zerrenda egitearen aurka ez azaldu. Zubiturrek ez zituen argi ikusten ondoren zerrenda horiekin eman beharreko urratsak.

Aurrekontuen inguruan, suhiltzaileen auto berri bat erosteko Udalak 60.000 euroko laguntza jaso duela aipatu zuen Xabier Zabalo alkateak.

Kalez kaleko salmenta arautze-ko hasierako onespeneraren alde bozkatu zuten hautetsi guztiak.

Bilkuraren inguruko informazio gehiago jakin nahi duenak udal-letxera joan eta bertan galdetzea nahikoa izango du.

SILVESTRE ZUBITUR UPN-TIK PP-RA

Nafarroako hainbat komunikabideren arabera Silvestre Zubiturrek, Udaleko zinegotziak, UPN utziko du Nafarroako Alderdi Popularrean sartzeko. Espainiako aurrekontuen inguruan bi alderdien artean eztabaida sortu zuen. UPNren zinegotzi batek barne arautegia hautsi zuen eta PPrekin batera osoko zuzenketaren alde bozkatu zuen Madril. Ondoren, 1991. urtetik bi alderdiek zuten akordioa hautsi egin zuten. Zubiturrek batera joan da PPrara Pello Urkiola bertsoalaria, Leitza UPNren zinegotzi ohia.

Leitzako pilotariak indartsu txapelketa ezberdinetan

Pilota » Abel Barriolak 22-12 irabazi zion Julen Retegiri Lau t'erdiko Txapelketaren final zortzirenetan.

A. IMAZ

Nafar Jokoak, Uharteko Txapelketa, Errioxakoa, Burlatakoa eta Lehen Mailako Lau t'erdiko Txapelketa leitzarrez gainetza egon dira asteburuan. Aurrera Pilota Eskolako haurrak herri ezberdinetan jokatu dituzte euren partidak eta Abel Barriolak final zortzirenetan Eibarren jokatu zuen.

Abel Barriola ligaxkan

Lehen Mailako Lau t'erdiko Txapelketaren azken ligaxkan aurkitzen da leitzarra, Julen Retegiri 22-12 irabazi ostean. Final zortzirenetako partida Eibarren jokatu zuten herenegun Barriola eta Retegi gazteak.

Haseran gaztea jarri baldin bazen ere aurretik (0-3; 2-5 eta 7-8), partidaren bigarren zatian Barriola nagusitu zitzaion.

Ligaxkan Martinez de Irujo, Titi III.a eta Olaizola II.a edo Koka edukiko ditu arierio leitzarrik.

Nafar Jokoak eta besteak

Errioxako txapelketan bi final jokatu ziren larunbatean. Sagastibelza-Petite bikoteak 12 eta 18 galdu zuten Egiguren-Irribarriaren aurka. Hernan-Artolak 22-14 irabazi zuten euren finala Arozena-Gonzalezaren aurka.

Burlatan Sagastibelza Lasarte-Hernandorenak 18-11 irabazi zuten euren partida Juanenea-Anduezen aurka. Uhartren Jon Jaurarenak 17-22 galdu zuen Ojuelen aurka iragan ostiralean.

Nafar Jokoetan partida ugari jokatu dira Amazabalen, Lizarran, Uhartan, Iruñean eta Irurtzunen. Hauen artean, Aurrera Pilota Eskolako Iera Agirre-Saioa Aristorena bikoteak, paleta goman Iruñean jokatutako partida azpimarra daiteke. Oberenako Urtaşun-Ruizen aurka jokatu zuten ostiralean eta 28-30 galdu zuten partida.

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

LUISA JAUREGI ZABALA

ANDREA
(Felix Maritxalar-en alarguna)
Atzo hil zen, 94 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere animaren zuzendaria: Patxi Azpitar: seme-alabak: Luis, Ignacio eta Pilar Gorostidi, Tiburcio (†) eta M. Teresa Aranzabe (†); Manuel (†) eta Nieves Arnedo, Vicente eta Asun Barbia, Arantxa eta Jesus Arruabarrena, Joxe eta Bixen Iraola; bilobak, birilobak, ahizpa: Maria eta Carlos Espolinos (†); ilobak, lehengusua, gainerako ahaideak eta bere laguntzaileak: Lourdes Zubillaga. Haren animaren alde otowitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR ASTEARTEA, zuzendako BOSTETAN, Gazteluko ANDRE MARIAREN JASOKUNDEA parroki elizan, GORPUBERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hilbidex: Gibelalde goikoa, baseria.
Oiharra: Gorputz belia Tolosako Funeraria
Vascongada Tanatorioan egongo da.



GAZTELUN
2008ko azaroaren 4an



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 034. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldiak

■ **Amezketeta.** Euskararen inguruan herritarren arteko solasaldia 20:30ean gela polibalentean, Kultur Hamabostaldiaren barne.

Ikus-entzunezkoak

■ **Alegia.** Ipar Potosirekin bat proiektzioa, Kultur Etxean, 19:30ean.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Azaroko zinema bonuen salmenta 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, Kultur Etxean.

■ **Tolosa.** Hilaren 8an izango da Engomadora Modernako langile ohien bazkaria Fronton jatetxean. Informazioa eta erreserbak 943 117010 eta 943 674669 telefono zenbakietan..

■ **Tolosa.** Ibarra Alurr dantza taldeak *Sua* ikuskizun berria aurkeztuko du hilaren 16an Leidorren, 19:30ean. Sarrerak Servikutxan.

■ **Zizurkil.** Jubilatuen eguna izango da hilaren 16an: meza Arantzazuko Amaren elizan, bazkaria Izaskunen eta dantzaldia. Izenematea, 26 eurotan Elizpe elkartean, eta Asteasukoek Iturriondon.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Zorionak!

Isabel Izeta Gurrutxaga (Tolosa). Herenegun 102 urte. Amona, zorionak eta muxu asko familiaren partetik. Guinness errekorra hausteko asmatan? Segi beti bezain irribarretsul!

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.



Zorionak parrandera!

Ea halako martxosa ta langile jarraitzen dezun urte askotan! Osasuna ta zoriona! Merezi dittezu ta! Muxu bero ta besarkada izugarri bat.



Zorionak!

Animo eta eusti gogor! Muxu handi bat. Maite zaitugu!